

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Latiarren kokatutako udal-titulartasuneko ondare-ondasunak kostu bidez besterentzea, prozedura irekiaren bidez eta enkante gisa. (Expediente: 2020/52/S566)

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 9an hartutako erabakiaren bidez, Latiarroko 9 hiri-finka besterentzea onartu zen, Laudioko Udalaren jabetzakoak, prozedura ireki bidez, enkante bidez. Halaber, besterentzea arautuko duten baldintza-agiriak onartu dira. Hona hemen funtsezko edukia:

1. Enkantearen xedea

Eranskinean zerrendatutako ondasun higiezinak besterentzea.

2. Lizitazioaren gutxienerako tasa

Eranskinean zerrendatzen da lote bakoitzerako.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua

– Tramitazioa: arrunta.

– Prozedura: irekia.

– Modua: enkante publikoa.

4. Behin-behineko eta behin betiko fidantza

– Behin-behinekoa: ez da beharrezkoa.

– Behin betikoa: esleipen-prezioaren ehuneko 5 (BEZik gabe).

5. Lizitazio-baldintzei buruzko dokumentazioa eta informazioa lortzea

– Euskadiko kontratazio-plataforma (<http://www.contratacion.euskadi.eus>).

– Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuko Udal Ondareko Zerbitzu Unitatea.

Laudio.

Herriko plaza z/g, 2. solairua.

Telefonoa: 944034823

Emaila: b.gomez@audio.eus.

6. Eskaintzak aurkezteko epea eta tokia

Laudioko Udalaren Erregistro Orokorra (Herriko Plaza z/g, behea ezk.), bulegoko orduetan, hamabost (15) egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn eta Euskadiko kontratazio-plataforman argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Proposamenak postaz bidali ahal izango dira.

7. Iragarkiaren gastuak

Esleipendunaren kontura.

8. Plikak irekitzea

A gutun-azala barne-ekitaldian eta ekitaldi pribatuan irekiko da.

B gutun-azala ekitaldi publikoan irekiko da, eta horren data ALHAOn eta Euskadiko Kontratazio Plataforman iragarriko da.

Eranskina

Enkantean jarri beharreko ondasun higiezin zerrenda

LOTEA	HELBIDE	KATASTROKO LURZATIA	ERREGISTRO FINKA	HIRIGINTZA-PARTZELAREN KOPURUA, PLAN PARTZIALAREN ARABERA	LIZITAZIOAREN GUTXIENeko TASA
1	Arrola, 11	Poligono 5/ Lurzati 353	15324	15	220.000,00
2	Txarlazo, 1	Poligono 5/ Lurzati 360	15331	22	220.000,00
3	Arrola, 2	Poligono 5/ Lurzati 361	15332	23	220.000,00
4	Arrola, 4	Poligono 5/ Lurzati 363	15334	25	220.000,00
5	Arrola, 12	Poligono 5/ Lurzati 370	15341	33	220.000,00
6	Peregaña, 1	Poligono 5/ Lurzati 373	15344	40	220.000,00
7	Txarlazo, 2	Poligono 5/ Lurzati 374	15345	41	220.000,00
8	Txarlazo, 4	Poligono 5/ Lurzati 376	15347	43	220.000,00
9	Txarlazo, 10	Poligono 5/ Lurzati 382	15353	49	220.000,00

Laudio, 2020ko urriaren 14a

*Alkate-udalburua***ANDER AÑIBARRO MAESTRE**